

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

100.000 bisita baino gehiago 2023an

Santa Maria Katedralak 101.282 bisitarekin itxi zuen 2023ko ekitaldia, hau da, % 8,8ko igoera izan zuen 2022ko zifrarekin alderatuta, eta horrek agerian utzi du duela 20 urte baino gehiago martxan jarri zenetik iazko urtearen erdialdean bi milioi bisitak gainditu zituen proiektuaren indarra. Izan ere, aurten ere Katedrala Arabako eta Euskadiko elementu erakargarri turistiko nagusietakoa izan da.

Kopuru esanguratsua izateaz gain, gogorazi behar da Santa Mariako bisitak bisita gidatu modalitatean egiten direla oso-oso sorik, eta, beraz, interes turistikoko beste gune batzuetan, museoetan edo erakusketazentzuetan, esaterako, ematen ez diren bisitari kopuruaren mugak daudela. Izan ere, urteko egun seinalatuetan (Aste Santua, abuztua, Gabonak), bisita-programak "ez dago txartelik" kartela zintzilikatzen du.




Katedrala bisitatzen dutenen jatorriari dagokionez, estatu barruan Madrilgo Erkidegotik, Euskal Autonomia Erkidegotik, Kataluniatik, Andaluziatik, Valentziako Erkidegotik eta Gaztela eta Leonetik etorritakoak nabar-

mentzen dira, ordena horretan. Atzerriari dagokionez, jatorrizko merkatu nagusiak Frantzia, Italia, AEB, Alemania eta Herbehereak dira. Nazioarteko bisitak bisita guztien % 15 dira jada.

Katedrala, ondare kulturalak Europan duen balio sozialaren adibide

Santa Maria Katedrala Fundazioak erreferentziatzeko erakunde gisa hartu du parte "Operadore tradizionalen eta sormen-industria kulturalen arteko sinergiak" izenburupean Interreg Europek antolatutako webinarrean. Topaketa urtarrilaren 16an egin zen, eta ondarea balioztatze politikak aktiboengatik nabarmendu diren eskualdeetako ordezkariak hartu zuten parte, hala nola Italiako Friuli Venezia Giulia eskualde autonomoa, edo Letoniako Jelgavam hiria.

Leandro Camarak ordeztu zuen Fundazioa, eta Interreg Europe-ren CREADIS3 proiektuaren barruan, "Obretan eta Irekita" Programaren kultura-ondarearen gizarte-balioaren ikuspegia eman zuen. Camarak azpimarratu zuen bezala, esperientzia hori kultura-ondareko inguruneak eta kultura- eta sormen-industriek babestutako gizarte-berrikuntzarako plataformaren adibide ona da. "Gasteizko proiektuak, herritar guztiak kultura-ondarearen inguruan sentibilizatzeaz gain, egoera zaugarrian dauden pertsonen gizarteratzea hobetzeko asmo sendoa du", ziurtatu du.



Elkarren ondoan: Fundazioaren eta Gasteizko Udaleko zerbitzu teknikoaren arteko lankidetzaz

II. Turismo Zerbitzua



Santa Maria Katedrala Fundazioaren ibilbidea hasi zenetik, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Saila oso presente egon da gure jardueran, bere hainbat zerbitzuren bitartez.

Horrela, 2006. urteaz geroztik, Gasteizko Erdi Aroko harresira bisita gidatuak egiten ditugu, Erdi Aroko Hirigunea-Katedrala bisita bate-

ratuan laguntzen dugu eta Udaleko Turismo Mahaian, Green Card-ean, turismo-azoketan eta abarretan gaude.

Eskerrak eman behar dizkiegu, halaber, Turismo Estatu Idazkaritzaren SICTEDen (Jomugetakoa Kalitate Turistikoaren Sistema Integrala) ziurtagiriak eta Basquetou-

rren Turismoko Kode Etikorekin ziurtagiriak lortzera bideratu gaituztelako eta lortzen lagundu digutelako. Gure bisitetarako plus bat da.

Orain arte bezala, lankidetzan jarraitzea eta etorkizunean lankidetzarako puntuak bilatzea espero dugu.

ALTXOR BIZIA - Izen Gozoaren Erretaula

Obra hau Flandrian erosi bide zuen Juan Alonso de Gámiz enbaxadoreak 1558 inguruan. Erretaula txikia da, eta gurutzaduraren zutabe batean egon zen, Epistolaren aldean. Espazio horretan familiaren armarrria eta enbaxadorearentzako eta bere ondorengentzako lurperatze-gunea zeuden, baita Jesusen Izen Gozoaren kofradia ere. Erretaula bertan egon zen 1856ra arte, eta une horretan katedraleko beste leku batera eraman zuten.

1550-58 inguruan Anberesen egindako Lehen Errenazimentuko obra da. Bankua, bi gorputz, hiru kale eta atikoa ditu. Bankuan, tenpluan baztertutako San Joakinen eta Santa Anaren margolanak daude, Aingeruaren Agerpena San Joakini eta Ama Birjinaren Gurasoak tenpluan limosna ematen. Erdiko



kalean Zirkunzisia eta Ama Birjinaren Lokartzea irudikatzen dira, eta alboetan Jaiotza eta Aurkezpena baino ez dira antzematen, beste bi eszenak desagertu egin baitira, baina litekeena da Kristoren haurtzaroari lotutako gaiak izatea.



Jarrai gaitzakezu